

# Diktablanda gogor baten birjaiotza

Joxe A. Otaegi

«Demokrazia formalaren» kontu horiek, itsukeriaren eta radikalismo mugaezinaren kritikatzat eduki ohi nituen. Sentimentalki utopiaren produktoak eta, niretzat okerrago zena, intelektualki desonestoak. Sekula ez zaizkit ezer gustatu, molesztatu egiten zidaten, fede beroegiko jendeak beti molesztatu nau eta, fede negatiboak zirenean ere. Objektibo eta liberaltzat neukan neure burua. Radikalismoak ez nituen maite.

Orain — kritika askoren itsukeriak ezin ahaztu baditut ere bat-batean— hasia nago ikusten, kritiko haiek nola iritsi daitezkeen situazio batzutan arrazoi osoa izatera. Horrelako situazio bat gurea da. Demokrazia hau «demokrazia formal» soil baten bide tristean doa, hitzaren zentzu txarreanean. Axal-axalaren azpian, lehengo diktadura berbera. Agintekeria.

Hil zen Leviathan zahar gaiztoa, krokodilo-sugea, eta berehalaxe berbiztu zen: gazte lerdena, donariozkoa, saloetako lehoi bat, irrifartsu, eguzki berdetan dantzari. Europako edozcin bezain dotorea. Paseo bat egin zuen kalez-kale jendearen oles eta txalo artean. Hura festa! Jai algara batetan herri oldeak. Mitinak, dantzak, asanbladak, hausteskundeak, erreferenduak, «irabazi dugu», — denak ijiji eta ujuju. Amets batek adina iraun du pozak. Beharbada geure ilusio bat zen horrela ikustea. Leviathan gaztea berehala hasi bait da, ez dakigu gortesiazko ala mespretxuzko irribarrez, hortzak erakusten: goante txuriz ager-

tzen da jendaurrean, baina goarnizionero armatuz ondo inguratuta, arma artean tente burua gora. Altzairuzko begiak. Tanke-tek eta mitrailetan egiten diote berriro gortejoa.

Bagenekien mendebaleko «demokrazia formal» ez dela perfektoa. Eta gurea hainbat kaskarragoa zela. Baina, Europako mailara —eskas, baina inbidiatura— iristen ez baginen ere, perfekzioak historian miresten baino gehiago beldur ditugunok, esperantzaz bete ginen, Madrilgo botere beltzak noizpait ere XIX. mendearen azpitik ateratzen hasi zirelakoan argi berri-tara. Nekezena beti ere abiatzea omen da. Horra, bada: abiatuak gintuzun. Mendebalerantz. Luteroren erreformarantz. Frantziako iraultzarantz. Giza eskubideetarantz. Sozialismorantz. Historian beti galdu egin ditugun mila gauza haietarantz. Helduko ginen gu ere poliki-poliki. Ez, paradisura ez: oraingoz aski izango genuen Europako maila moduren batetara iristea. Beraz, indartu egin behar zen demokrazia, Leviathan gaxtea. Zabaldu askatasuna.

Eta batzuk irrintzi, bestek arrantza, denok ezin ginen bat etorri, baina optimistenak ere bazuen kezka franko, pesimistena-ri ez zitzaion esperantzarik falta ordea, denok ekin genion lanari, bakoitzak bere modura.

Aldi honetan niri ez zidaten batere graziaz egiten zenbait radikalen kritika globalek eta burlek «demokrazia formalari». Oso komodoak eta ezertarako gabeak iruditzen zitzaizkidan. Konforme, ez genuen asko: baina aspaldian inoiz izan dugun gehiena bai, etab. Agian, egon zegoena baino gehiago, espero genuena, ikusten genuen? Itxaropenarekin ikusten genuen, ez begiekin.

Gero —«inboluzioa» deitzen diote— jadanik ez dago begiekin ez ikusterik, begien bista-bistan gertatzen ari zaiguna. Demokrazia «indartzeko» askatasunak zanpatzen dira. Eztabaida librearen ordean dekretuak. Ordenua eta diziplina berriro kaleetan. Leviathan zaharraren antz gehiago hartzen du gaxteak egu-netik egunera eta, ahaztu nahi genuena, Leviathankumea zela alegia, berak ez digu uzten ahazten. Diktablanda zaharra bir-jaiotzen ari da herriz-herri, kalez-kale: bere militarrez, polizia-z, apezpikuz, kontrolez, enpresariz, torturaz, zentralismoz, xobinismoz, zinismoz... Jaialdi laburra bukatu eta betiko beltzak altxatu dira nagusi berriz ere. Espainia «eterna».

Tejerazotik tijerazora, autonomiak freinatu eta moztu egiten dira berriro, edo mila modutako trabak ezartzen zaizkie, ezin

funtziona dezaten. Eta okerrena guzti honetan: botere zentralak berriz ere ez lotsarik, ez inolako eskrupulorik duela, arbitrarioki nahi duen dena egiteko, edozein marrukeriaz eta zikinkeriaz, edo hotz-hotz dekretuz soil-soil, Noeren arkaren modura Parlamentua: ezin egin txintxo-txintxo barruan jarraitu besterik, bestela dilubioak irentsiko dituen beldurrez. Han daude Noeren abereak, ekaitza noiz pasako. Agintarien zinismoa eta kolaboratzaileen beldurra ezkondu dira. Hiru botereen zatiketa demokratikoak ez du jadanik funtsik, hirurak lan errepresiboan ari dira elkarren lehian zein baino zein. Prentsa eta informazio askatasuna zeharo murriztu da: autozentsuraz, hots, bere buruaren polizia eta gartzelero norbera izendatuz bakoitza, edo eta medioaren esistentzia bera oso zailtzen duten mehatxuz ikaratuz lotsagabeenak (*Egin*). Alderdiak, etengabeko txantajeen bidez, esku lotuta utzi dira, Aste Santuko flagelante prozesio bat baino gehiago kontzertatu eta harmonizaturik. Berdintsu sindikatuak, paroak paralizatu ditu. Paroa, berriz, Leviathan gaxteak berak ondo daki nola dinamizatu. Polizia, otsoa artaldean bezala.

Bitartean, amets egin genituen gure xedeak eta helburuak, urruntasuneko esperantza lanoak bilakatu dira. Arratsaldeak etsipenaren mantu iluna zabaltzen du gure gainetik. Egiten ditugun borrokak ez dira ezer irabazteagatik, ez itozteko defentsa desesperatua baino. Termopiletan gaude eta, Atenas salbatzeaz gero, badakigu denok erori beharko dugula, alfer-alferrik agian. Ez dago indarririk botere beltzen erasoari eusteko. Ifarretik Hegera gau ari du berriro.

Denbora oso gutxi barruan eguzkia bizten eta itzaltzen ikusi dugu. Batzutan, historian priblejiatuak ote garen, daukat inpresioa. Gurpil zaharraren itzulia, gehienetan ezkutua eta zaila gertaeren azpitik interpretatzen, momentu honetan, gure begien bista-bistan ari dela bere zikloa betetzen, iruditzen zait, mogimendu kosmiko baten antzera eta inork ebitatu ezinik, historiaren esplikabide oso konplexu asko guri bere biluztasun gorri-gorrian eta bere fatalitate absurdu guztian ezagutzea tokatu balitzaigu bezala. Weimar txiki bat eta Hitler koxkor batzuk. Ez dago ez ikusterik diktablanda gogor baten birjaiotza, astiro-astiro, gure begien aurrean. Harrigarria, nolabait. Ekliptse batetara asistituko bagenu bezalaxe, begi-zabal eta txunditurik, inpotenziak harri eginda.

Berrogei urte ondoren, berriro beharra zegoen etxea. Hasi zen, bada, eraberriketa. Sindikatuak onartu ziren, Alderdiak

ametitu, egunero informakari berriak sortzen ziren eta biltzen, gartzelak hustu samartu ziren preso politikoen pabilioietan (dagoeneko tontorka bete dira berriro), denok kontent ginen, herriak hautatua zirudien Gobernuak. Hasiera on bat.

«Demokrazia formalaren» kritikoek Marxen egunak ezkerroztik beti marratzen eta azpi eta birmarratzen dutena, setatsu, hain zuzen, horixe da: askatasunak politikoak bakarrik direla, formalak, ez egitazkoak. Alegia, joko batzuetan partehartzen uzten duela (hauteskundeetan, etab.), eta horrekin jendeari askatasunaren impresioa eta ilusioa sortzen zaiola, baina partehartze guzti horiek azken finean ez dutela zerikusirik resultaduan. Resultadua, zer egin edo zer aldatu, erabakitzen dutenak, ezkuto beste indar ilun batzuk direla. Zartaginaren kirtena eskuan daukatenak. Orduan jendea, egiazko borrokan zentratu ordez, mila borrokatxotan distraitzen da, alderdikierietan, joko horietan, eta bitartean agintea egiaz eskuetan daukanak, bere negozioa lasai-lasai jarraitzen du. «Demokrazia formalak» desbideratu eta alienatu egiten duela jendea, hauteskunde eta borrokatxo artean berotuta, egiazko borroka ahantz dadin. (Nola pentsa genezakeen, topiko txarrok profetia onak irten behar zutela hain agudo?) Horra orain begien bistan.

Ederki ihardun dira, bai, azpitik, axalean jendeak mila borrokatxotan ziharduen artean, botere beltzak beren egiazko borrokan. Itxuraz aldakuntza haundiak egin dira. Maliobra arriskutsuak eta sentsazionalak egin dira, itxuraz. Etxetik bota morroin zahar leialak eta berriak ekarri, komunistak eta masoiak, etsai amorratuak atzo arte. Herriaren eritziari foro bat ireki zaio Parlamentuan, itxuraz. Agintea eman zaio herriari, itxuraz. Harreman modu berriak asmatu dira. Gortesiak. Autonomi paperak eta titulu partiketak. Eta bat-batean, orain, atzera mar-txa. Pauso bat aurrera eta bi atzera.

Momentu batzuetan bazirudien, gortesia soiletatik pasako ginela zerbait aurrerago. Benetakoa izango zela herriaren agintea, pixka-pixkatxo bat bederen. Ia ezingo zela atzera egin. Baina orduan, norbaiten interesak arriskuan egoten hasi ziren edo, Kasandraren ulu erdiragarriak entzun ziren, etxea goitik behera zetorrela, denok azpian lehertuko ginela, eta ikaratu zen jendea hezur muinetaraino. Stop eta buelta. Larri baino larriago, hasitakoak geldiarazi dira berriro, jarritakoak kendu eta eginak desegin, askatasun aire pittin batentzat horman irekitako leihoak eta arkuak berriz estali harriz eta zementuz, betiko orde-

nua irmotu...: eta lagundu eta lagundu, bestetarako aukera gabe, txantajeagatik hala beldurragatik, horra non ari diren morroin berri guztiak morroin zaharren lan berberak konplizten, Estatuari eusten, ordenua aseguratzen, sindikatuak eta oposizioko Alderdiak, atzoko separatistak eta boltxeviceak, esku-atzoko faxistekin, hain zuzen beren morrontzako etxebarrua eginahaletan prestatzen, aparatua bizkortzen eta funtzionaketa garantizatzen, etxe zaharraren hormak sendotzen, boterearen edozein abusadio isil-isilik onartzen, edozein tiraniak dekretu zitzakeen legeak bedekintzen, heterodoxoak kiskaltzen, azkenean beren betiko morrontza eternizatzen... «askatasun formalak» salbatzeko! Horra resultadua: aldatu egin behar omen zen Estatua, batez ere salbatu egin behar dela. Eta zeinek, salbatzaile berriok ez bada?

Hala eta guztiz ere eta alabaina, ordea, nik ezin ditut onartu «demokrazia formalaren» edo «burgesen» kritika eta burla horiek, deus ez balitz bezala jendearen engainu hutsa besterik. Demokraziaren ideia gizonaren inbentu bat da, dinamita gizonaren inbentua den bezalaxe, eta berez dinamita bezain esplosiboa, zapalkuntza sistemak leherrarazteko. Gero errealitatean harekin zer egiten den, nola gauzatzen den, gure kontua da. Gure kontua da «demokrazia formalak» zentzu positiborik merezi duen ala ez.

Urte asko egon dira langileak, emakumeak, Alderdiak, sindikatuak, Euskal Herria, Estatuko herri guztiak, askatasun minimo batzuen egarriz. Sofrituz eta borroka eginez. Batzuk gchiago, besteak gutxiago. Askatasun minimo-minimo batzuk, duintasun minimo batetarako behar dira. Eta batez ere behar dira, elkarbizitza sozialik posible izan dadin. Elkarbizitzarik ez da posible gizarteko sektore batzuk ilegal deklaratu, edo eritzi batzuen espresioa penalizatu, edo «besteen» giza eskubideen zapalketa (gure kontrario politikoenak, beharbada) axolakabeki pasatu: detentzioak, torturak, etab., baina baita manifestazio debekuak eta ere (HBren Aberri Eguna, etab.). Ez da aski horrelakoetan deklarazio piadoso batzuk egitea eta goazen gure lanetara. Elkarbizitzarik ez da posible, batzuei beren giza eskubide oinarrikoenak ezagutzen ez zaizkien artean, basapiztiak balira bezala, ez gizonak, eta besteak lasai-lasai beren arazoetan (beharbada oso santuetan, berdin da) dabilzan artean. Demokrazia, edo guztiena da, edo ez da demokrazia. Eta guztion demokrazia da guztiok esijitu behar duguna eta egin behar duguna. Bestela demokrazia ez da benetan «formala», formaltasun demokra-

tikoa hain zuzen guztien berdintasun formalarekin hasten da eta.

Hemen ez dago zergatik «demokrazia formalari» burla egin. Alderantziz. Asmo bat eta helburu bat izatetik ez da pasa. Egin gabe zegoen oraindik eta hasiak gaituzu desegiten. Hemen klase politikoa preokupatzen duena, «esku bortitza» nola lortu, da: koalizio Gobernuz, gutxiengoak Parlamentuan desagertaraziz, etab. Nola kontentarazi Armada. Nola eman inpunitate gehiago terrorismoaren aurkako banda armatuci. Nola isilarazi ahots diskordanteak eta nola ito protestak, arras protesta demokratikoak. Hobe genuke, bai, «demokrazia formalik» bagenu eta ez «demokrazia vigilante»a eta bere bigilantziatzeko obrak: «Demokraziaren Defentsa Lege» deitu denak, ez bakarrik ez du demokrazia formala defendatzen, baina berak denaturatzen du, agintarien edozein kapritxo absolutistari legezketasuna emanetz. Alarma, salbuespen eta setio legeak, lege antiterroristak, etab. etab. Franco gabeko frankismoak aisa eman du bere produktu naturala: Tejero gabeko tejerazoa. Leviathan, jaïnkora, baina ahalguztiduna.

1651n publikatu zen Hobbesen *Leviathan*, autoritarismoaren doktrina garbienarekin eta klasikoenarekin. Botereak absolutua izan behar omen du, Zergatik? Biolentzi eta anarki giro bat gainditzeko, jendearen eskubideak eta askatasunak mugatu beharra dagoelako, on komunaren alde; kontrolatu beharra dagoelako irakaskuntza, eritzien zabalkundea; diziplina zorrotz bat ezarri beharra dagoelako eta, elkarteari iraunkorkien custen diona beldurra bait da, erein beharra dagoelako beldurra eta errespetua gizarte bizitzaren oinarri gisa. Honetarako, ordea, botere sendo bat behar da. Gizabanakoen eskubideak oro aginpidearengana pasatzen dira. Menpekoak eskubide gabeturik geratzen dira erabat. Eta jendearen alderantziz, agintariak mugagabeko eskubideak ditu, bere egitekoetan inolako trabarik izan ez dezan. Ahalguztiduna da, teorian, eta praktikan gogorra eta zakatza. Ongi armatua izan behar du, polizia bortitz batekin, ordenua eta bakea, seguritatea, lana, «komertzioaren gozotasuna», bizitza eta askatasuna garantizatzen. Subiranoa legeen beren gainetik dago. Bera da legea. Berak erabakitzen du zer dagoen ondo eta zer gaizki. Menpekoek itsu-itsu obeditu egin behar diote beti. Ez dago anarkia gainditzeko beste biderik, aginte absolutua baino.

Eta ez dago —jarraitzen du Hobbes-ek— komunitatearen

desintegrazioa (oi, Espainiaren zatiketa bedeinkatua!) ebitatzeko ere beste biderik. Subiranoari ahalmenak mugatzea, menpekoei eritzi askatasuna uztea, etab. ez dira desintegrazio faktoreak baizik, azken finean anarkian eta biolentzian amiltzen gaituztenak. *Leviathan*-en dena goitik behera ongi hierarkizaturik eta diziplinaturik dago. Eta guzti honen garantia bezala: ezpata.

Anarkia eta biolentzia gainditu — komunitatearen desintegrazioa ebitatu: zaharrak, oso zaharrak kontuak... Hobbes ez da izan, halere, kezkaok autoritarismora eta boterea absolutizatzeraz bultzatu zuten azkena. Entzun egungo gure politikoak eta begira nora goazen.

Guk berriz ere metaforatan hitzegiten ikasi beharko dugu. Zeren eta norbait ederki ari bait da azpitik bere negozioak egiten, axal-axalean gehienak beren jokotxo eta borrokatxoetan enplegatzen diren artean. Eta hegotik ifarrera, XIX. mendea ari du berriro.

J. A. O.